


# Aretxagazeta

Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaleta • 1998ko abenduak 10 • 157. zka.



## Argazki artxiboa

Gabonetan herriko etxe eta baserriak ikusgai

Iturririk iturri: Myriam Beltran de Heredia ■ Iritzia: Juanjo Perez ■ Kirolak: Josu Izagirre

B	O	W	N	D	C	A	R	I	S	M	A
H	E	M	I	T	S	U	B	I	S	H	I
A	K	D	S	Ñ	O	J	B	Y	U	G	E
H	R	M	S	B	S	8	O	F	D	C	Y
U	J	S	A	I	G	V	U	V	4	O	P
H	Y	U	N	D	A	I	L	O	Y	N	R
M	U	T	M	W	L	T	I	R	O	F	U
I	T	V	S	E	L	O	Y	H	V	O	L
C	K	I	E	V	O	L	V	O	L	R	E
R	B	T	J	U	P	Y	M	B	X	T	T
A	G	O	I	M	E	R	C	E	D	E	S
O	T	B	E	J	R	Y	F	R	M	E	L
P	A	C	C	E	N	T	K	E	R	I	U

Aurkitu itzazu sei  
**AUTO MARKA**  
desberdin...

Ez jarraitu begira,  
zatoz Aldibi-ra!



Aldibi autoak, S.A.



MERCEDES  
Izar autoak, S. L.

**VOLVO**

Auto Suecia



GALLOPER  
Almovil, S.L.



HYUNDAI  
Musakola autoak, S.L.



Aldikar autoak, S.L.

**ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 71 20 02 / Faxa: 943 79 65 65**

inpresak • jai egitarauak • kartelak • liburuak • katalogoak •

fakturak • tarjetak • pegat

ak • liburuak • kalendario

maioak • publizitatea •

postulazioak • impre

liburuak • katalogoak • fa

liburuarik • errekoratator

posterrak • sarre

egitarauak • kartelak • lib

jetak • pegatinak • aldizk

kalendarioak • presupues

posterrak • sarre

egitarauak • kartelak • lib

jetak • pegatinak • aldizk

kalendarioak • presupues

posterrak • sarre

egitarauak • kartelak • lib

jetak • pegatinak • aldizk

kalendarioak • presupues

posterrak • sarre

egitarauak • kartelak • lib

jetak • pegatinak • aldizk

kalendarioak • presupues




Araba Ibilbidea

20550 ARETXABALETA

Industrialdea F-0-4

Tfnoa.: 943 79 18 44

Faxa: 943 79 29 41



**EGUZKIGRAF**

inprimategia

## Gaur egun errespetatzen dira giza eskubideak?

### Begoña Urkia

(Langilea)

Leku guztietan ez dira errespetatzen, oraindik asko hobetu behar da.

Emakumearen inguruko gaietan eta kartzelakoetan errespetatzen direla gutxien iruditzen zait.




### Jose Mari Roldan

(Langilea)

Nik ezetz uste dut, 50 urtetan hobetu bada ere, oraindik lan handia dago egiteko.

Estatu barruan poliziak dira behar bada gutxien errespetatzen dituztenak.



### Eulogio Escobales

(Langilea)

Ez, ez dira errespetatzen nahiz eta zerbait hobetu arlo honetan.

Preso, marjinatutako talde eta politikarekin zerikusia duten gaietan uste dut errespetatzen direla gutxien.



### Bego Iturricastillo


(Langilea)

Ez oraindik gai askotan ez da errespetatzen.

Gai honi buruz ez dakit gehiegi, baina kartzela izango dela uste dut gutxien errespetatzen den tokia.



e s k u t i t z a



## Trafiko seinaleak errespetatzeko daude

Errespetuari buruz hainbeste hitzegin den egun hauetan batzuk ez dira konturatu eguneroko bizitzako arauak errespetatzeak duen garrantziaz. Azken aldian Belorrieta kaletik behera etorritako kotxe gidari asko ez da konturatu Errekabarren kalera sartzea debekatzen duten bi trafiko seinale daudela. Ez dira konturatu edo ez dute konturatu nahi, baina benetako arriskua sortzen ari dira hori egitean. Behar bada beraiek pentsatuko dutena "hortxe aparkatu behar dut eta 100 metro besterik ez dira" izango da, baina ez 100 metro ezta metro bat ere, kale hori norabide bakarrekoa da eta beste aldetik ezin da sartu.

Haur batzuek ere bizikletekin okerreko norabidean ibiltzeko ohitura hartu dute. Egunen batean zerbait gertatuko da eta orduan eskuak burura! Bere momentuan zuzen ditzagun akatsak gero negar egin beharrik egon ez dadin.

M.M.A.  
18.591.178



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Aretxabaletako  
Udalak diruz  
lagundutako  
aldizkaria

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Kultur etxea, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 01 05. **Erredakzio-kontseilua:** Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzailea:** Janete Bragado. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

# Ederlanek hainbat inbertsio burutuko du

## Aretxabaletan egiten ari den pabilioia Europako modernoenetarikoa izango da

Aspaldian sarritan atera da Ederlan komunikabideetan burutu nahi dituen inbertsio haundiak direla eta. Baina zer egiten da Ederlanen? Oraindik batzuk ez badakite ere, Fagor taldean dagoen lantegi honetan kotxeetarako piezak egiten dituzte.

### Kotxeentzat pieza eta subtaldeak

Bi negozio unitate daudela esan daiteke, bata freno eta suspentsio saila da, burnira zuzendutako aktibitatearekin eta bestea motor eta transmisioa, aluminioarekin. Gehienbat piezak egin arren, subtaldeak ere gero eta gehiago eskatzen dizkiete. Apirilean, esaterako, 22 pieza eta 20 kilo inguru dituen subtalde bat, frenotik suspentsioraino doan atala, egiteko eskaria jaso zuten. Egindako pieza gehientsuenak esportatu egiten dira, kotxe lantegi haundienak kanpoan baitaude. Beraien bezerorik garrantzitsuenak General Motors, Ford, Rover-BMW

eta Renault, dira baina Honda, Volkswagen eta Mercedes etxeek ere egiten dizkiete eskariak.

### Aretxabaletako pabilioi berria

Anjel Akizu Ederlaneko ikerketa eta garapen saileko burua da eta automozio barruan teknologia, produktua... berriak aztertzen ditu. Berak Aretxabaletan egiten ari diren pabilioiaren berri eman digu. "Aluminiora zuzendutako aktibitateak egingo dira eta Europako modernoenetarikoa izango da, makina automatikoekin lan eginaz". Momentu honetan Aretxabaleta eta Eskoriatzako lantegian urtean 17.000 tonelada aluminiozko pieza egiten dira, beste atal hau martxan jartzean 27.000 toneladara iritsiko da. "Haunditze honen arrazoia batez ere Ford-entzat oso pieza bereziak egin behar izatean datza. Ford-ek lantegia Burdeosera erakitzea nahi zuten, baina gu lanpostuetan pentsatuz burugogor jarri ginen hemen egin zedin eta azkenean lortu dugu".

### Proiektu berriak

Aurrera begira dituzten proiektuen artean garrantzitsuenetarikoa Aretxabaletako atala egitea da,



Makina automatikoekin lan egingo da

horrela 3 proiektutik 2 osatuak geratuko lirateke. Subtaldeak egiteko bestalde, Zaragozan lantegi berria egiten ari dira, 2000. urteko abuztuan lanean hasiko dena eta 2000. urtean Brasilera ere heldu nahi dute, General Motorsek jarriko duen lantegi bat hornitzeko. "Momentu honetan 1.300 langile inguru gaude, 1.000 bazkideak izanik. 2002 urterako, berriz, 2.000 bazkide izateko konpromezua hartuta dugu" -dio Anjelek- "hemengo atal berrian 79 lanpostu inguru sortuko dira, Zaragozakoak 60 bat langile eskatuko ditu eta Brasilgoak 300".

Euskal Herrian automozio mailan lantegi inportanteena izanik laister Espainia mailan haundiena eta European hiru garrantzitsuenen artean egongo da.



Pabilioi berrian Ford-ek eskatutako pieza bereziak egingo dira



Zenbaki

Basabe  
Industrialdea C Pab.  
Aretxabaleta

Tfnoak: 943 71 21 12  
943 71 22 68

**Aholkularitza**

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 943 77 13 57

**OSKAR**

HARATEGIA

Loramendi,1  
☎ 943 79 71 69

## Bai euskarari eguna

### Kanpaina herrian zabaldu eta bultzatu nahi da

Pasa den azaroaren 26an "XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari" kanpaina barruan herri batzordea osatzeko bilera egin zen Loramendi Euskara Elkartearen. Bertan 12 bat pertsona elkartu ziren eta hurrengo egunetan egin beharreko lanak banatu zituzten: entitate desberdinei laguntza eskatu, kartelak jarri, merkatariei dendetarako kartelak eraman eta abenduaren 11ko festa antolatu.

### Abenduaren 11an festa

Bai euskarari kanpainari buruz herrian berri eman eta berau bultzatzeko antolatu nahi da festa. Eguakotxean, abenduak 11, eguerdian emango zaio hasiera eskoletako umeen kartel jartzeaz. Ondoren kalejira izango da trikitilariekin eta arratsaldeko 4etan Bai euskarari abestia abestuko da. 5etan herri kirolak izango dira

ikusgai, 6etan erraldoi eta buruhandiak eta ondoren poteoa. Egunari amaiera emateko bertso afaria egongo da Peñagarikano eta Mendiluze bertsoariekin.



Herri kirolak izango dira arratsaldeko 6etan



### Gaztainak erre eta jan

Kurtzebarri eskolako haurrek gaztainak zelan erretzen ziren ikusi eta ondoren jateko aukera izan zuten lehengo egunean. 2 urteko umeak ere adi adi egon ziren danbolinari begira, suak eta gaztainen tiro hotsek liluraturik.

### Mixio taldeak proiektu berriak

Aurten ere Parrokiako Mixio Taldea osatzen duten sendotzako gazteak ekintza berriak prestatzen hasi dira. Beraien helburu garrantzitsuena Hirugarren Munduaren alde lanean ari diren hainbat pertsonei laguntzen saiatzea izanik, Legazpiko Parrokiak eskuartean dabilen proiektu bati heltzea erabaki dute. Bertan "República del Congo" (Zaire)tik egindako eskaera bati erantzuten ari dira, aspirina bilketarenari, hain zuzen, eta Aretxabaletako gazte hauek ere ekintza honetan parte hartuko dute. Bilketa honetarako herritarrei languntza eskatu nahi diete, abenduaren 14tik 28ra bitartean hainbat komertziotan kutxak jarriko baitira aspirinak uzteko.

GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALAREN URTEURRENA

Gaur, hilak 10, Nazio Batuek giza eskubideen deklarazio unibertsala onartu zutenetik 50. urte pasa dira. Nazio Batuek diotenez aldarrikapen hau herri eta nazio guztien jomuga izan behar harko litzateke, irakaskuntza eta heziketa bidez eskubide eta askatasunarekiko errespetua lortzeko.



# LASAGABASTER-en

## AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

### 3. adinekoendako Gabonetarako programa

Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero moduan 65 urtetik gorako bakarrik bizi edo bikotea izanda ere bakardade arazoak dituzten pertsonendako Gabonetarako programa antolatatu du.

#### Bi egunetako egonaldia

Egonaldia, Donostiako Orly hotelean izango da, abenduaren 24 eta 25ean eta joan etorrietarako autobus zerbitzua egongo da. Gabon egunean afaria eta ondoren dantzaldia izango dira eta Eguberri egunean gosaria eta eguberriko bazkaria emango dituzte.

Egonaldi honen prezioa bakoitzaren hileko irabazien arabera aldatu egingo da, beraz, hori frogatu

tzeko 1997ko errenta aitortpena edo erakunde eskudunak egindako pentsio agiria aurkeztu beharra dago.

#### Izen ematea

Izena emateko eskaera orriak Udaletxeko Ongizate Sailean beteko dira eta ordaindu beharrekoa Orly hotelaren kontu korrontean sartuko da. Ordainagiri hau Ongizate Sailera eraman eta handik dokumentazio osoa (eskaera orria eta ordainagiria) Gizartekintzara bidaliko dute.

Izena emateko azken eguna abenduaren 16a, eguaztena, izango da eta eguakotxerako onartutako zerrendaren berri emango da.

#### Gabon gueko afaria

Urdaiazpiko Iberikoa  
Askotariko frijituak  
Otarraiskak plantxan  
Salda  
Zainzuriak eta urdaiazpikoa hojaldrean  
Azpizun erdialdea barazki goxo eta patata xehekin  
Sagar krepeak  
Turroi aukera  
Ardoa  
Kafea  
Likore kopa

#### Eguberri eguneko bazkaria

Zainzuri frijituak berakatz freskoen saltsarekin  
Onddo nahastura  
Legatza saltsa berdean almeja eta kokotxekin  
Trufa tarta natila gainean  
Turroi aukera  
Ardoa  
Kafea  
Likore kopa

### Urkuluko urtegia urez gainezka



Ez da sarritan atera daitekeen argazkia Urkulu urez gainezka

Ez da sarritan agertu ohi den irudia, baina azken asteetako eurijasen ondorioz bete bete egin eta azkenean gainez egin du.

Urkuluk 8 herritako 69.708 biztanleri ematen dio ura. 58 m.ko altuera eta 19,26 km<sup>2</sup>.ko azalerarekin 10.000.000 m<sup>3</sup>.ko ur-izateko ahalmena du. Irailaren bukaera eta urriaren hasieran egindako euriekin nahiko beteta zegoenez, azkenengo egunetako eurijasa hauek gainez egitea eragin diote. Gipuzkoako Ur Kontsortzioak emandako datuen arabera urriaren hasieran bere ahalmenaren %92 zegoen beteta, orain berriz %99,41 (azaroaren 30eko datua).

Azken 8 urteetako datuak aztertu ezkeror gutxien 1990eko abenduan eta 1995eko azaroan izan zuela ikusi da, orain daukanaren kopuru erdiarekin. Ur kopuru handiena, berriz, 1993 eta 1996ko abenduan izan zuen, baina bi kasu hauetan ez zen heldu %100era.

## ORTOPEDIA ORTO LAGUN

**Berandu baino lehen, zaindu zaitez!**  
**Zuk nahi baduzu,**  
**zure osasuna zaintzeko gaude.**

Kontzezino 2 • ARRASATE • Tfnoa: 943 79 89 34



*Lubia*  
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA  
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE



Caroline Philips eta Mixel Ducau taldearen kontzertua udaletxe zaharrear

## Kontzertu bikaina Caroline eta Mixelek eskaini zutena

Caroline Philips eta Mixel Ducau bikote baionarrak eta Luis Camino eta Ritxi Salaberria taldekideek kultur errotaren barruan antolatutako ekitaldian kontzertu bikaina eskaini zuten aurreko eguakotxean udaletxe zaharrear. Honen aurretik Ander Lipus antzerkilariaren obraz gozatzeko aukera izan zuten bertan bildutakoek.

Musikari lapurtarrek folklore doinu tradizional ugari plazaratu zituzten jendeaurrera. Horien artean, Mikel Markez, Jon Iñaki Izarzelai, Xabier Amuriza eta Kepa Akixok idatzitako letrak zeuden.

Hurrengo ekitaldia abenduaren 20an izango da eta hemen Patxi Kaleko bizkaitarra izango da ikuskizuna eskainiko duena.

## Etxebizitza berriak Portasolen

25 zonaldean, Ibarra eta Anduaga tabernen atzeko aldean, geratzen den "Villa Genoveva" etxe handia, bertako ortuak eta tailer txiki batzuk bota eta 16 unitateko bi etxebizitza egiteko proiektua dago. Plan berezia

onartu ostean, lanak 1999ko bigarren hiruhilabetea hastea espero da.

Loramendi kalea ere Bainetxeraino luzatzeko asmoa dago, San Martineko etxebizitzak eta etxe berri hauek banatuko dituelarik. Horrela Bainetxera heltzeko bidea hobetu eta auzokoentzat kale ego-kia gauzatuko da.

## Herri Komunikabideei Buruzko III. Jardunaldiak

Joan den azaroaren 27 eta 28an ARKOk, Arrasate Komunikabideak, Herri Komunikabideei Buruzko III. Jardunaldiak antolatu zituen. Eskuarlean ibili zen gairik garrantzitsuena herri aldizkari eta telebisten kalitatea nola hobetu izan zen.

Bertan izandako hizlarien artean Goio Arana, Arrasate Presseko diseinatzailea izandakoa, Antonio Canelo MCCko lehendakaria, Luis Fernandez kazetaria, Ricard Rafecas Kataluniako Eskualde Prentsa Elkartearen lehendakaria, Joseba Igarabide Baztan aldeko telebistaren sortzailea, Ibon Sarasola euskal idazle eta hizkuntzalaria eta Ainhoa Elices Herri Aldizkariaren Topaguneko teknikaria, beste hainbaten artean.

Astekari, hamabostekari eta hila-betekari merkaturan gero eta toki haundiagoa hartu badute ere, oraindik lan handia dagoela egiteko argi geratu zen. Aretxagazetakook ere ideia berriak entzun eta gure hamabostekaria hobetzeko aholkuak adi-adi jaso genituen.



**DOIKALSE**  
Elektroerosio  
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 943 79 82 44

**BENGOA**  
URDAITEGIA

Bertako okelak eta  
mortzilak


Durana, 9  
Tfnoa: 943 79 19 79

*©kindegia - Gozotegia*

**Aretxabaleta**

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19  
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta  
Bertako okina



## Euskal Herriak bake prozesuari ekin behar dio

**“Edukiei dagokionez, begibistan da auzi honen azpian subiranotasun arazoa dela konpondu beharrekoa”**

**I**txaropentsu aurkitzen da Euskal Herria. ETaren su-etenak atek zabaldu dizkio bake prozesuari. Egoera berri honek eragin zuzena eta sakona izango du gure herrian eta baita gure egunerokotasunean ere. Ikuspegi eta “klabija aldaketa” garrantzitsua eragin beharko digu; orain arteko gure harremanak, politika egiteko modua, besteekin erlazionatzeko modua,... zabalago eta desberdin ikusteko aukera eragin beharko digu hain zuzen.

Egoera honen aurrean, erantzunkizun haundia dute alderdi politikoeak. Zabaltzen ari den esperantza frustrazio berri batean bilakatu ez dadin, elkarrizketa prozesuaren hasiera lehenbailehen zehaztea izan beharko litzateke beraien lehen egitekoa: zertaz hitzegin behar den, nola erabaki behar den, non hitzegin behar den, nola egokitzen den Euskal Autonomia Elkarte eta Nafarroa eta Espainiar estatua bezalako errealitate politiko ezberdinen arteko elkarrizketa prozesua, zein bitarteko juridikorekin emango zaion erantzuna guzti honi, etabar...

Edukiei dagokionez, begibistan da auzi honen azpian subiranotasun arazoa dela konpondu beharrekoa. Gatazkan parte hartu duten agenteek azaldu dutenaren arabera, lehendabiziko ahalegin hau, hego Euskal Herriaren markura mugatuko litzateke, Iparraldeko auzia etorkizunerako utziaz. Beraz, akordio berriaren erronka nagusia, Euskal Autonomia Elkarte, Nafarroa eta

Espainiar estatuaren arteko harreman berriak definitzea litzateke, Euskal Herriko pluraltasuna kontutan hartuta.

Eta hor dago koxka. Urte askotan entzun izan dugu, indarkeriarik gabe politikan dena eztabaidagarria dela. ETAk hiltzeari uzten zionean, posible izango zela herri honetan ematen diren sentsibilitate eta aldarrikapen guztiak, mugarik gabe, eztabaidatu eta garatu ahal izatea. ETAk urrats garrantzitsua eman du. Hemendik aurrera ezin da aitzakiarik jarri bitarteko demokratikoak erabiliz, erakunde demokratikoen artean, helburu demokratikoen inguruan eztabaidatu eta elkarrizketa prozesu demokratikoa martxan ipintzeko.

Bake prozesu honek ekarriko duen konponbidea ez da betiko izango. Ez da akordio itxi bat izango, azken urteotako enfrontamendu eta demokrazia falta gainditu eta egoera berriei atek zabalduko dizkiena baizik. Ideia horrek lagundu behar digu eta lasaitasuna eman, malgutasunarekin, bakoitzaren helburuak alde batera utzi gabe, datozen urratsak ikuspegi errealista batekin eman ahal izateko.

Bitartean, gatazkak eragin dituen ondorioei konponbidea eman beharko zaie ahalik eta modu zuzen eta azkarrean; batetik indarkeria sufritu dituztenekiko sentsibilitate, errespetu eta begirune haundia izanik eta bestetik, preso, errefuxiatu eta deportatuak herrira bueltatzeko bitartekoak ipiniz.

Juanjo Perez

**M**  
**MEMESA**  
Industri hornidurak  
Tfnoa: 943 71 24 11  
ARETXABALETA

Frutan eta txarkuterian  
espezialitatea  
**Angelines**  
AUTOZERBITZUA  
Mitarte, 16 • 943 79 61 42

**IBARRA**  
ESTANKOA  
 Tabakoa eta  
ikasmateriala  
Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77

**PAGALDAI**  
Opari denda  
Durana, 33 ☎ 943 79 10 14  
ARETXABALETA



# Myriam Beltran de Heredia

## Drogomenpekotasun prebentzio teknikaria

Gizarte laguntzaile ikasketak egin eta 8 urte daromatza Aretxabaletako udaletxeko ongizate sail barruan drogomenpekotasuna zaintzeko proiektuarekin.

Myriam lehengo arazo berberak jarraitzen dutela dio nahiz eta orain itxuraz aldatuak egon.

**- Eskoriatzara ere joaten zara?**

- Bai, Aretxabaletan astean hiru egunetan egoten naiz eta Eskoriatzan bi aldiz. Bietan lan bera egiten dut.

**- Zein da zure eginbeharra?**

- Azken aldian prebentzioa lantzea da nire lana. Herri mailan ere egiten da zerbait, baina batez ere eskoletan burutzen dira ekintzak, informazio eta heziketa egokiaz prebentzioa lortzeko.

**- Gustoko duzu zure lana?**

- Bai, oso gustoko. Momentu atsegina eskolek beraiek eskatzen dutenean laguntza izaten da, horrela askoz errezagoa delako lan egitea. Beste batzutan, berriz, zerbait antolatzera joan eta ez dute batere interesik erakusten; hori gogorra izaten da.


**- Orokorrean nolako erantzuna jasoten duzu?**

- Gero eta hobea, gero eta kontzientziatuagoak baikaude arazoak konpontzeko bidea prebentzioa dela.

**- Jendearen arazoak konpontzen dituzu?**

- Hasieran hau zen nire lan garrantzitsuena, baina orain tratamenduan dauden pertsonak ez dira asko eta gehienetan beraiek kabuz joaten dira ospitale edo osasun zentruetara. Sarritan ongizate sailekook ez gara enteratu ere egiten ez baitugu harreman zuzenik gaixoeekin.

**- Droga arazoa gutxituz joan**



### “Momentu honetan alkohola da arazo serioenetakoa”

**dela uste duzu?**

- Aldatu egin da. Lehen droga garrantzitsuena heroina zen eta orain honen kontsumoa gutxitu egin da. Momentu honetan alkohola da arazo serioenetakoa, batez ere gazteengan, gero eta azkarrago hasten baitira edaten.

**- Noizpait konponduko da arazo hau?**

- Drogak beti egongo dira gure inguruan eta hau onartu eta normalizatu egin behar da. Drogak hor egon arren, guk ez hartzea lortu behar

dugu eta kanpainen helburua drogen gehiegizko kontsumoa moztea da.

**- Drogak legeztatzearen aldekoa zara?**

- Droga guztiak legeztatu ez, heroina, kokaina,... horiek ez. Hachis-aren kasuan ez dakit zer esan, bere alde onak eta alde txarrak dituela uste dut.

**- Ongizate sailean denok batera lan egiten duzue?**

- Nire lanak ez dauka besteenarekin zerikusi haundiegirik. Batzutan, ordea, besteekin kontsultatzen ditut nire kasu eta lanak iritzia edo laguntza eskatuz. Ongizate batzordean bestalde, denok batera gaude, beraz, han elkarren berri izaten dugu.

**- Drogez gain HIESaren prebentzioa ere bultzatzen da?**

- Bai. Hasiera batean biak oso lotuak zeuden, HIESa batez ere drogaz erabilitako xiringa bidez kutsatzen zelako. Momentu honetan herriko bi eskoletan egin dugu HIESaren aurkako kanpaina eta HIES EKIMENArekin ere hasieratik egon gara harremanetan.

**- Zein proiektu dituzue eskuartean?**

- Iaz alkohola landu genuen eskoletan, lehenengo test batzuk bidali, ondoren informazioa banatu eta berriz test berberak eman zitzaizkien gero datuak konparatzeko. Aurten eskola batzuk gauza bera egiteko eskatu digute, baina alkoholaz gain beste droga batzuk ere sartzea pentsatu da. Orain abenduan pasako dira lehenengo inkestak eta gero urtariletik aurrera landuko da. Eskolek beraiek eskatu izana inkestak egitea, irakasle asko ikasleak aste buketan drogak kontsumitzen dituztela konturatu baitira, oso positiboa da interesa dagoelako beraien aldetik.

# TABERNA eta JATETXEEN GIDA

## Zaraia taberna

**MANTEKA  
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

## Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA  
☎ 943 79 20 67

## Kixkor taberna

**KIXKOR**  
taberna

Mitarte, 13 • ARETXABALETA  
☎ 943 79 20 60

## Josu harategia

Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak

*Josu harategia*

Mitarte, 1 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 77 03 08

## Arlutz taberna



Mitarte, 16 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 79 32 34

## Gurea taberna

**Jatetxea eta  
taberna**

**GUREA**

*Eguneko menuak*

Durana kalea • 943 79 20 64

## Mendiola erretegia

ESKORIATZA

Tfno 714345

ERRETEGIA


◆ *Bazkari  
eta afariak*

*Astelehenetan  
itxita*

MENDIOLA

Mendiola auzoa • Eskoriatza

## Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 79 85 57

## Goyaran erretegia



**GOYARAN ERRETEGIA**  
• *Panina espejalitza*

Solohaundi-8 ARETXABALETA  
☎ 943 79 68 57

## Bazter alde jatetxea



**Sasoiko  
jakiak  
giro  
onenean**

Galartza auzoa  
☎ 943 79 24 58  
ARETXABALETA

## Jose Mari bodegoia

**Eguneko  
menua**

Nafarroa, 6  
Tfnoa: 943 79 20 45  
Aretxabaleta

**Jose Mari  
bodegoia**

## Izotz taberna

*Zure gustoko giroa*

**IZOTZ  
TABERNA**

## Amets taberna

**AMETS**

**Taberna eta kafetegia**

Iparagirre, 4 • 943 79 01 29  
Aretxabaleta

## Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

## Dorleta taberna

*Dorleta*

*Bezeroen zerbitzura*

Loramendi 8 • ARETXABALETA  
☎ 943 79 94 15

# Argazki artxiboko lan taldea

**Zeinek daki argazki artxiboko lan taldea zertan dabilen? Borondatez egiten den lanak ez du preziorik eta gainera isilean egiten bada...**

Behin baino gehiagotan ikusi ditugu beraiek antolatutako erakusketak, gerra zibilarena esaterako, baina gehientsuenok ez dakigu zeintzuk dauden ekin-tza horien atzean, ezta zelan lan egiten duten ere. Beraien bu-ruak aurkeztu eta proiektuen berri emateko aukera eman nahi izan diegu, herrian agertaraz-teko garaia heldu delako.

**T**alde sortzeko ahaleginak aspaldikoak dira, orain 20 bat urte Alkar Taldeak, Uda-laren laguntzarekin, argazki elkarte bat eduki baitzuen martxan. Garai hartako partaide gehienak desager-tu badira ere, ez da gauza bera ger-tatu orduko ilusio eta lan gogoaz.

Talde berri hau orain dela urte eta erdi, asko jota ere bi urte, sortu-takoa da, nahiz eta estatutudun elkarte moduan urte erdi bakarrik eraman. Manolo Urtubi, Alberto Etxeberria, Jose Ramon Elkorok eta Pablo Txintxurretak osatzen dute. Momentu honetan lau badira ere, zabalik dagoen taldea da eta lanera-ko gogoia duen edozein gustora har-tuko dutela diote.

## ARGAZKI ARTXIBOA

Aretxabaletako argazki artxiboa osatzearen ideia UDAko 50 urteak


ospatzean agertu ziren argazki zaharrak ikusita, Alberto Etxeberria eta Jose Ramon Elkorok berrartu zuten, aurretik ere agertutako ideia baitzen. Hauek Manolori komenta-tu eta horrela hasi ziren.

Artxibo hau sortzearen helburua edozein herritarri bere herri eta his-toriaren berri izateko aukera ema-tea da. Iraganeko argazkiak berres-kuratu eta eguneratu nahi dituzte, gazteek orain 20 edo 40 urte atxa-baltarrak zelan bizi ziren ezagutze-ko, baina gaur egungo bizimoduaz ahaztu gabe, artxiboa gauza bizia izan behar dela baitiote. Artxiboa-ren oinarria Aretxabaleta izango da, elizate, auzo, paisaia, kale, etxe,... baita pertsona, talde eta elkarteak ere.

Ahal den argazki zahar guztiak berreskuratu nahi dituzte eta horre-tarako kanpoko artxiboetan begira hasi dira: "Paisajes Españoles" delakoan milioi bateko baliodun Aretxabaletako 200 argazki atze-man dituzte. Tolosako Ojanguren artxiboan ere beste 80 bat argazki daude eta Kutzakoan 40 inguru. Denak eskuratu nahi dituzte, baina poliki poliki izango da. Beste alde batetik herriko jendeari ere eskatu nahi diete, jende askok argazki zaharrak gordeta izango dituelako.

## LANEKO MATERIALEA

Alkarrek bere garaian laborate-gia osatzeko egin zuen inbertsio onari esker, gutxieneko egokitzape-nak egin dituzte erabili ahal izate-



Alberto Etxeberria eta Manolo Urtubi Muru Alde elkartean



ko. Laborategi hau batez ere zuri beltzeko argazkietarako erabiltzen dute, koloretakoentzat ez baita oso gomendagarria, batetik kalitatea ez delako oso ona eta bestetik merkeago ateratzen delako dendara eramanda. Informatikako ekipo nahi-ko osotua ere badute ordenagailu, inpresora, eskaner, Cd room eta Zip-az. Formatu erdiko argazki kamara bat ere erosi berri dute eta baita argazkiak erreproduzitzeko mahai bat ere.

## ARGAZKI KONTSERBAZIOA

Antzinako argazki hauek diapositibara pasatzen dituzte denbora luzean gordeteko modu egokiena delako. Eskaneatu eta Cd room-era ere erabiltzen dute, horrek sailkatu eta ordenadorean lan egiteko aukera ematen baitu, egoera kaxkarrean aurkitzen diren argazkien manipulazio eta berreskurapenarena, argazkiak koloretzatzearen aukera, ... “Artxibo dexentea osatzen

dugunean album bat egin eta liburutegian jendeak ikus eta erabil dezan jarri nahi genuke” dio Manolo Urtubik. “Noizko izango den ez dugu esan nahi artxibo bat osatzea lan luzea delako, baina urte pare

## “Artxibo dexentea osatzen dugunean album bat egin eta liburutegian jendeak ikus eta erabil dezan jarri nahi genuke”

bat barru zerbait egotea gustatuko litzaiguke”.

## GABONETARAKO PROIEKTUAK

Aretxabaletako auzo eta elizate guztietako baserri eta elizei argaz-

kiak atera dizkiete eta baita herriko etxe guztiei ere. Manoloren esanetan “Orain laupabost urte hasi nintzen lan honetan eta jadanik bukatzekotan dago”. Hau artxiboko zati bat izango da, baina osatu bitartean herritarrek zerbait ikusi dezaten Gabon hauetarako ikus-entzunezko emanaldi bat prestatu dute diapositiba hauekin. 200 diapositiba izango dira auzoka banatuta, lehenengo auzoko mapa agertuko da, ondoren bertako eliza eta patroia eta azkenik auzoko baserri guztiak. 30 minutu iraungo du proiektioak eta behin eta berriz errepikatuz joango da”.

Honetaz gain, auzo eta herriaren maketa bat ere jarri nahi dute “1:2.500 eskaladun maketa da, 18 m<sup>2</sup> ditu eta bertan baserri guztiak beren izenekin eta herriko kale guztiak agertuko dira” dio maketaren zuzendaria den Alberto Etxeberriak. “Gaurko gazteek auzoetako txoko eta baserri gehienak ez dituz-





te ezagutzen eta hori hurbilerazi nahi diegu, etorkizunean izen horiek gal ez daitezen”.

#### TALDEAREN FUNTZIONAMENDUA

Astero bi bilera egiten saiatzen dira bata artxiboa osatzeko, argazkiak bildu eta sailkatuaz eta bestea argazkilaritzari buruz hitzegiteko. Kide bakoitzak funtzio jakin bat ez badu ere, lanak nahiko banatuta dituzte Manolo eta Alberto argazkilariak dira, Jose Ramon informatikoa eta Pablo kulturako gaietaz informatzen dena. Bilerak Muru Alde elkartearen egiten badituzte ere, beraien lokala errebelatzeko laborategi eta informatikako ekipoz osatuta daukate.

Gabonetarako aurkeztu nahi duten proiektu honekin nahiko lanpetuta dabilta azken asteotan. Ikus-entzunezko emanaldia gertatua badago ere, maketak lan handia dauka. Albertok libre duen edozein une aprobeztatzen du bertan

lan egiteko eta beste bolondres batzuk ere laguntzen diotela dio.

#### DIRU LANGUNTZAK

Materiala erosteko dirua udalet-

**“1:2.500 eskaladun maketa da, 18 m<sup>2</sup> ditu eta bertan baserri guztiak beren izenekin eta herriko kale guztiak agertuko dira”**


xetik jaso dute, faktura guztiak bertara pasatuz, baina egiten ari diren lan guztiaren jabea ere udaletxea izango da. Beraz, borondatez egingako lana dela esan daiteke ondoren herriarentzat eta herritarrentzat

geratuko den lana. Lan hau burutzen asko ikasi dutela diote auzo eta baserri asko eurentzat ezezagunak baitziren.

Momentu honetan artxibo honekin oso lanpetuta dabilta, baina gerora begira beste ekintza batzuk antolatzea ez dute baztertzen, lehiaketak, argazkigintzako ikastaroak, erakusketak, artxiboaren mantentzea, ... Lan handia eskatzen du guzti honek, baina eurak gozatu egiten dute argazkilaritzaren inguruko gaiekin.

Batzuk txikiteoan egiteko ohitura dute, beste batzuk etxean gelditzen dira telebista ikusten, laukote honek denbora liberako ere lana aukeratu du eta oraindik ez zaie damutu aukera hori egin izana. Jendea proiektu honetan parte hartzerantz animatu nahiko lukete, bi urte hauetan gauza asko ikusi eta ikasi dutelako eta ikusi eta ikasitakoaz gozatu gainera.





Talde irabazleak 70.000 pezetako saria jasoko du

## Deba Garaiko koadrilen arteko III. olinpiada

Aurten hirugarren aldiz ospatuko da Deba Garaiko koadrilen arteko olinpiada, Deba Garaiko Mankomunitatearen eskutik. Oraingo edizio honek gure artean hain

ohikoak ez diren kirolak tartekatzen ditu: igeriketa, esku pilota, hockey-a, saskibaloia eta soka-tira. Igeriketa izango da lehen kirola eta hemen denborarik onena egiten due-

nak irabaziko du. Esku pilota 16 tantutara jokatu da binakako taldeetan. Hockey-an bosnako taldeak beharko dute izan eta 15 minutuko partidak izango dira. Saskibaloia hiruko jaurtiketen bidez neurtuko da eta azkenik sokatira 8ko taldeetan egingo da. Igeriketa ezik gainontzeko kirolak kanporaketa sistema bidez neurtuko dira.

### 70.000 pta talde irabazlearendako

Olinpiada abenduaren 30ean goizez burutuko da Oñatiko Zubikoa kiroldegian eta Deba Garaiko 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Taldeek zortzi hamabi lagunez osatutakoak izan beharko dute. Sari oso erakargarriak daude lehenengo hiru taldeentzat. Talde irabazleak 70.000 pta.ko saria izango du, bigarrenak 35.000 pta.koa eta hirugarrenak 20.000 pta.koa.

Izen ematea abenduaren 19a baino lehen egin beharko da eta informazio gehiago Deba Garaiko zerbitzuetan jaso ahal izango da.

# Loramendi kirolak

**Hotzari aurre egiteko...**

**Forro polarrak**

**Goretex-ak**

**Txamarrak**

**Botak...**

**eta ski ekipoa**

**21.900 pta.tik**

**hasita.**



*Etorri katalogo berria jasotzera*

**INTERSPORT**

# Josu Izagirre

## Triatloietako partehartzailea

Beharbada ez da garairik egokiena triatloiez berba egiteko, baina Josu Izagirrek neguan ere entrenatu behar izaten du udaberri aldera hasten diren duatloi eta triatloietan partehartzeko.

Beraz, kirol baterako beharrez hirutarako gertatu behar da: igeriketa, bizikleta eta korrika. Sakrifizio handia eskatzen duen arren, norbere mugak ondo ezagutu eta lasai hartzea komeni da.

### • Noiztik zabilta triatloietan parte hartzen?


Gogo aspalditik neukan eta koadrilan ere banuen lagun bat triatloietan parte hartzen zuena. Ikasketak bukatu eta gero hasi nintzen, orain hiru bat urte. Beti pentsatu izan dut triatloian ondo moldatuko nintzela, bizikletan eta igerian betidanik ibili naiz eta.

### • Kirol bakarria beharrez hiru, gogorra dirudi horrek.

Norbera ahal duen mailan ibiltzen da, hemen ez baitago deskalifikaziorik. Ondo moldatzen zaren kirolean aurreratu eta besteetan mantentzen jakin behar da. Hasieratik norbere mugak garbi izatea garrantzitsua da eta karrera lasai hartzea ere bai.

### • Zenbat triatloi mota daude?

Lau mota daude: Sprig-a, Olinpikoa, erdiko distantziakoa eta Iron man-a. Spring-a oso motza da: 750 m. igeri, 20-25 km. bizikletan eta 10 km. korrika. Olinpikoak distantzia bikoitza du. Erdiko distantziakoa Zarautzekoa da, Estatuan egiten den bakarria, eta hau olinpikoaren bikoitza da. Iron man-



## “Sakrifizio handia eskatzen duen proba da triatloia”

a 4-5 km. igerian, 80 km. bizikletan eta maratoia egitean datza. Azken hau oso selektiboa da eta horregatik oso ondo gertatuta egotea eskatzen du. Espainian Ibizan eta Lanzaroten egiten da.

### • Hiru kirolak osagarriak dira?

Ez, igeriketak ez du arazorik ematen, baina korrika eta bizikleta ez dira osagarriak. Bizikletan ritmo oso arinak eraman behar dira, hantak asko behartu barik, korrika ondo erantzun ahal izateko.

### • Nesken partehartzea nolako da honelako probetan?

Gero eta gehiago ikusten da. Normalean lehendik kirolen bat egindako neskak dira, adibidez, gaztetan igerian edo korrikan ibiltzen zirenak. Berehala igerian da hori, igerian oso ondo moldatzen dira edota bestela korrikan.

### • Noiz hasten da triatloien denboraldia?

Triatloiak San Juan inguruan Zarautzkoarekin hasten dira eta San Pedrotan Donostiakoa izaten da. Horren aurretik duatloi probak egoten dira eta hauek Oñatin hasten dira martxoaren bukaera aldera. Hemendik ekainera bitartean beste sei duatloi proba ere egiten dira. Neguko triatloiak ere badaude, baina oso gutxi. Hauek korrika, bizikleta eta iraupen eskia tartekatzen dituzte. Niretako oso azkar da oraindik, bizikletan oso ondo gertatu barik egoten naizelako.

### • Hiru kirolean ondo erantzun beharrak dedikazio handia eskatuko du jakina...

Bai, sakrifizio handia eskatzen duen proba da. Gogor entrenatzen hasten naizenean, astean sei egunetan entrenatzen dut, bi egunetan igeri, beste bitan korrika eta bizikletan ere bi aldiz ibiltzen naiz. Udaberri eta udako jai gehienak ahaztu egin behar dituzu, San Juanak, San Pedroak...

### • Zein da zure hurrengo helburua?

Aurten triatloi guztiak egin ditut eta gorputzak ondo erantzun didala ikusi dut. Horregatik nire helburua ahalik eta ondoen gertatu eta Zarautzko erdiko distantziako triatloia egitea da.

# Txerriak, mortzil eta odolosteak

**Gabon ingurua baserri askotan txerria hiltzeko garaia da**

Baserri askotan entzun dira aste bukaera honetan txerri kurrikak. Izan ere gabon ingurua heldu da eta gainera joan den astebukaeran ilbehera baitzen. Arkarazoko Txainuena baserrira hurbildu ginen txerria hil osteko lanak ikusi eta ikasteko.

Urtean bi hiru txerri hazten dituzte etxean eta bertako etxeoandrea den Kontxi Mondragonek txerri hiltzeak ez duela aparteko lanik ematen dio. Betidanik hazi dituzte Txainuenean txerriak, beraz, ohitura hau atzera uzteko asmorik ez dute lanari aurre egiteko gai diren bitartean.

## TXERRI HILTZAILEA

Eguakotx arratsaldean hildako txerria arabatik ekarritakoa zen eta 130 kilo inguru zituen, txikia beraien esanetan. Berak emandako okela, odoloste, mortzil eta txorizoak arratsaten bizi den familiarentzat izango dira. Etxerako, berriz, urtarrilean hiltzeko hazten ari direna da.

Txerri hiltzailea etxekoa dute, Julian Mondragon. 64 urte inguru izan arren, oraindik Arkarazo eta Mendiolako baserri guztietan bera ibiltzen da.

“Ez naiz gogoratu ere egiten noiz hasi nintzen, 40 urte baino gehiago izango dira. Soldadutzatik bueltatu ostean hasi nintzela uste dut eta oraindik hemen nabil” dio Julianek.

## HIL OSTEKO EGUNA

Zapatu goizean sei bat gizon txerria zatitzen eta hiru emakume odolosteak egiten harrapatu genituen. Normalean horrela banatu izan dela lana esan zuen Kontxik “Noiz edo noiz gizonak ere ibili izan dira odo-

loste eginean, baina normalean emakumeon lana da”.

Eskuak odol artean sartuta zituena bitartean odoloste, mortzil eta txorizoak nola egin azaldu zigen. Lan haundiena esteak garbitzeak dauka, behin ondo garbituta beste guztia oso erreza ei da.

## ODOLOSTE, MORTZIL ETA TXORIZOAK

Odolosteak egiteko odola, seboa, kipula eta porrua ondo egosi behar da. Ondoren oregano apurren bat gusto hobea emateko eta piperra ugari botatzen diote “guri odoloste bizi biziak gustatzen zaizkigu, piper askorekin”. Esteak bete eta hiru lau minututan egosita eginda daude.

Mortzilak berdin egiten dira, baina este sendoagoak erabiliz, arroz apur bat ere botatzen zaie.

Txorizoak, berriz, zatitutako okelaz egiten dira, salmoian masa egin eta bospasei egun utzi behar zaio atsedenean. Azkenean esteak bete eta lehertzeko isegi egiten dira ganbaran.

Auzo askotako baserrietan hil dituzte egunotan txerriak, beraz, jaki goxok izango ziren etxe batean baino gehiagotan. Aukera duenak goza, beza baina gehiegikeriarik egin gabe.



Mari Feli eta Kontxi Mondragon odolosteak egiten

ARGAZKI

*Urkiola*

Tfnoa: 943 79 39 20  
ARETXABAETA

GARBITU S.  
COOP.

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 943 79 01 28

**BEGI ODO**

*optika*

Loramendi, 10  
☎ 943 79 98 21

*Carmen  
Fernandez*

**ABOKATUA**

Belorrieta Auzoa, nº 14 - 4º A  
20550 Aretxabaeta  
Tfnoa: (943) 77 05 94  
Fax: (943) 79 65 21





## Garai bateko ziklo krossa

**K**ontzezinoko zubia pasatu berri dugu, baina askok gogoan izango du abenduaren 8an ospatzen zen ziklo kross proba. 1967. urtean egin zen lehenengo nazioarteko ziklo kross criterium-a eta ordutik 1991. urterarte 22 proba egin ziren Aretxabaletan, ez da gutxi.

Proba hauen sorreran, 1966. urtean, Eloy Uriarte, Angel Arrese, Luis Mari eta Juan Antonio Iturbe, Luis Guridi, Manolo Zubillaga eta beste lagun batzuk elkartu eta komisio bat sortu zuten egun honen antolaketa lanerako. Txirrindularitzaren inguruan zerbait handia egin gura zuten. Espainiako telebista ere etorri zen gurera egun hartan, eta zuzenean emititu zen karrera. Profesioetan Alfredo Irusta izan zen txapaleduna eta Basualdo afizionatuetan.

Handik aurrera nazioarteko probak antolatzea pentsaturik, hurrengo urtean, 1967an, burutu zen lehena. Txirrindulari handiak bildu ziren. Argazkian ikus daitekeen Renato Longo italiarra izan zen txapelduna. Honekin batera beste atzeritar batzuek ere hartu zuten parte: Rolf Wolfshoh, Ducasse eta Pelchat. Herri guztiak lagundu zuen criterium-aren antolaketan eta agian horixe izan zen hurrengo urteetan criterium-a egiten jarraitzeko indarra eman zuena.

Argazkian ezkerretik eskumara: **Jose Mari Elkoro, Pelchat, Ducasse, Eloy Uriarte, Angel Zubillaga, Rolf Wolfshohl, Renato Longo, Gregorio Lasagabaster, Juanjo Ezkibel** (itzultzailea).

**OSKAR  
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 943 79 98 74  
ARETXABALETA

**ARETXABALETA  
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tfnoa: 943 79 17 53  
ARETXABALETA



**Lurrindegia  
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 943 79 38 59

**Mobiliario  
ARENAZA**

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

## LANA

◆ Esperientziadun emakume euskalduna **adineko pertsonak zaintzeko** gertu dago. Tfnoa: 943 77 04 60.

◆ **Eraikuntzan lan** egiteko jendea behar da. 943 71 64 12 telefono zenbakira deitu.

◆ **Langaiko lan eskaintza**

**Hidraulikako irakasle bat.** Donostia. Erref. 14814/4

**Programatzaile bat.** Bilbo. Erref. 14739/2

**Sukalde burua.** Zornotza. Erref. 14723/2

**Dependiente-Dekoratzaila.** Arabako lautada. Erref. 14297/6

**Itsasontzi-pintorea.** Bilbo. Erref. 14806/2

**Itsasontzi-higatzailea.** Bilbo. Erref. 14807/2

◆ **Lan eskaintza publikoak**

**Arrasateko Udalak arkitektoa** behar du modu finkoan betetzeko. Oinarriak: Arrasateko udaletxean hartu ahal izango dira. Izena emateko epea abenduaren 24a.

**Bergarako Udalak artxibategi-ko teknikaria** behar du. Betebeharrak: Unibertsitateko lizentziatura; euskararen 3. H.E. Iraupena: Behin behineko lanpostua, orain dagoen titularrak



**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.**

itzuli bitartean.  
Ezaugarriak: Oposizio lehiaketa librea behin behineko lanpostua betetzeko.  
Aurkezteko epea: 98/12/15  
Oinarriak: GAO 98/11/26  
Argibide gehiago: Bergarako Udala Tfnoa: 943 77 91 00

## DENETARIK

◆ Neska jator, zintzo eta errespetuduna bilatzen dut. Ni 30 urteko mutil bat naiz. Tfnoa: 943 79 41 44.

◆ Gurpil aulkirik, taka-takarik edo makulurik egoera onean eduki eta ez badituzu behar, beste pertsona batzuk horren beharrean egon daitezkeela pentsa ezazu eta deitu hurrengo telefono zenbakira 943 77 03 46 / 77 12 37 (Bego Falces, Osakidetza gizarte laguntzailea).

◆ Siames eta persa nahasteko katu beltz bat (lepoan zuriuneak) aurkitu da. Berri gehiago nahi duenak 943 79 01 05 telefono zenbakira deitu dezala.

## ETXEBIZITZA

◆ **Garaje bat** saldu nahi da Andra Mari auzunean. Intere-satuok 943 79 68 35 telefono zenbakira deitu.

◆ Aretxabaletan edo Arrasaten alokatzeko pisu baten bila nabil. Tfnoa: 943 71 20 72.

## LEHIAKETAK

◆ **Aretxabaletako eskola arteko X. Loramendi literatur lehiaketa.** Loramendi Euskara Elkar-teak antolatuta, bi atal egongo dira bertan. Lehenengoa lehen hezkuntzakoa da eta honen barruan ere bi maila daude 2.zikloa eta 3.zikloa. Hauek ipuin eta poesiak aurkeztu beharko dituzte, gutxienez 2 orrialde idatziz eta gaia librea izanik.

Bigarren atala DBHkoei zuzenduta dago eta hemen ere bi maila egongo dira, 1.zikloa eta 2.zikloa. Bakarka zein taldeka parte hartu ahal izango dute eta Deba Garai-ko nagusiei egindako grabaketak aurkeztu beharko dituzte, kantu zaharrak, ipuin eta pasadizoak, ohiturak, ogibide zaharrak,... Grabaketak 30 minututik beherakoak izango dira eta horrekin batera grabaketari dagokion aurkibide bat aurkeztuko da.

Lan guztiak euskaraz izango dira eta pertsona berak lan bakarra aurkeztu dezake. Epea abenduaren 18an bukatuko da. Argibide gehiagorako deitu 943 77 09 70 ra.

**MIREN**

*Ehunak eta berrietasunak  
salneurri bereziak*

Murubide, 1 ◆ 943 79 67 97

**ITURGINTZA**

**J.J**

Tfnoa: 943 79 07 34/79 31 87

**CONSUM EROSKI**

*Orain arraindegi  
eta okindegiak, zatoz!*

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11  
ARETXABALETA

# Hotza kendu guran



Azken asteotan hotz egin arren, euren barruak zelan berotu aurkitzen du jendeak. Batzuk etxeko kalefazioaren berotasunean epeltzen diren bitartean, kirola eginez berotzen dira beste batzuk. Aurreko batean esaterako Donostiako maratoia izan zen eta bertan **Oier Etxebarria**, **Jabi Irure** eta **Fernando Uribesalgo** izan genituen. Hotza eta euria izan zituzten etsai nagusienak.

Donostia aldean badabil beste norbait ere hara eta hona nabigatzen ikasten. **Ignacio Lopez de Armentia** lehengo liburutegiko arduraduna Diario Vasco-ko azken orrialdean agertu zen, Interneten zelan nabigatzen den ikasten dabilzan jubilatuen artean. Zertan denbora pasatu badu Ignaciok.

Beste behin ere gure txoko honetan hain ohikoak izaten diren kirol gaietara eginez, xakean ondo dabiltz Aretxabaletako taldeak. **Jesus Berezibar** arrasatearra, **Andoni eta Fran**

**Miguel eta Aitor Alcaidek** osatzen duten Preferente mailako taldea lehen postuan dago, bigarren taldeaz parekatuta. Herriko bigarren taldea ere aurrekoa bezain indartsu dago. Kasu honetan 3. mailan jokatzeko taldekideak **Joseba Altube**, **Esteban Romero**, **Kepa Balenziaga**, **Andoni Carrasco** eta **Aitor Bote** dira. Bigarren lekua hartu dute sailkapenean eta datorren astean bukatuko dute liga. Igoerako fasea jokatzeko sailkatuko dira, postua mantentzen badute behintzat.

Ibarra aldetik ere berri onak datozkigu. Joan den asteburuan Preferente mailako UDA 6-2 nagusitu zitzaion Orioko taldeari. Sailkapenean erdi aldean joan arren, gol sorta bikaina behintzat sartu zuten aurrekoan. Hona hemen golegileak zeintzuk izan ziren: **Astola**, **Luengo**, **Zubiria**, **Alberto eta Kepa** bi golekin.

Lehen mailako erregionala ere ez dabil makal. Aurrekoan 0-2 galdu zuten Elgoibarren aurkako partiduan, baina sailkapenean hirugarren daude.

Kirol kontuez gain kultur arloko gairik ere bada besteak beste Durangoko azokan izan baita herritarren inguruko libururik. Alde batetik, Gipuzkoako Kutxak **Iñurrategi anaiek** Himalayara egindako espedizioari buruzkoa, eta bestetik, Joxerra Gartzia **Jon Sarasua**, bertso ispiluan barrena". Badakizue, udazkenak ere denetarik ematen du.

## Liburutegiko txokoa

### Liburu berrien zerrenda

#### 0 urtetik aurrera

- La tortuga tímida/Linda Jane Cornwell; Frances Cony
- Sagutxo eta bere laguna / Steve Lavis
- Sagutxoren egun lanpetua / Steve Lavis
- Una aventura con el Buho Rúo / Maurice Pledger

#### 6 urtetik aurrera

- Rufus y las piedras mágicas / Marcus Pfister
- Jiran-Biran / Pello Añorga
- Zigor eta postetxeko lehoia / Vicente Muñoz Puelles
- Patxi errementaria, Martixio asmatzailea eta abar... / Jose Migel Barandiaranek bildutako ipuinetan oinarrituak (Mari saila)

#### 8 urtetik aurrera

- Charly, el ratón cazagatos / Gerd Fuchs
- Mi amigo es un Flash-Flash / Malorie Blackman
- El árbol del chicle hinchable / Alexander McCall Smith

#### 10 urtetik aurrera

- Fray Perico y su borrico / Juan Muñoz Martín
- Euli-hegoak Anxorentzat / Fina Casalderey

- El monstruo del pantano / Herbie Brennan

- La casa de los Sustez / Malcolm Yorke

#### 12 urtetik aurrera

- Bambuloren istorio Bambulotarrak (1 eta 2)/Bernardo Atxaga

#### 14 urtetik aurrera

- Laura eta itsasoa / Felipe Juaristi
- Los ojos rojos de Satán / Nortrud Boge-Erli
- El último trabajo del señor Luna / César Mallorquí

#### Helduak

- Myst III: El libro de D'NI / Rand Miller y David Wingrove
- El hereje / Miguel Delibes
- El viaje de Teo / Catherine Clément
- Mugaldeko jendea / X.L. Méndez Ferrín
- Jon Sarasua bertso-ispiluan barrena / Joxerra Garzia
- Etxepare porno / Luis Fernandez
- Izu zinezkoak / Harkaitz Cano eta abar...
- El diario de Bridget Jones / Helen Fielding

**Joseba Lopez de Armentia**

ABENDUA

8-31

12  
zapatua

19  
zapatua

**ESKAPARATE LEHIAKETA**

Gabonetako ekitaldien barruan Aretxabaletako Kultura Sailak antolatua.

**ANTZERKIA**

Arrasateko Senideak Elkarteak antolatuta Bordaxuri taldearen emanaldia izango da Amaia antzokian.

**ATZERATUEN ALDEKO JAIALDIA**

Aratz elkarteak antolatuta, gaueko 9,30etan Zaraia Zineman. Egitaraua: Arrasate Musikaleko perkusio, tronboi eta Jurassic Band taldeak eta Aschero Sistemako ikasleak. Leizarra Musika Eskolako txistu, tronpeta eta trikitilari taldeak. Bukatzeko Bi Luma taldearen ekitaldia.

II

14-17

egukotxa

**AUDIZIOAK**

Leizarra Musika Eskolako ikasleek audizioak eskainiko dituzte gurasoen aurrean.

20

domeka

**BAI EUSKARARI EGUNA**

Eguerdiko 2,30 etan eskoletako umeek kartelak jarriko dituzte kalean.

**Arratsaldeko 3etan** kalejira trikitilariekin.

**Arratsaldeko 4etan** "Bai euskarari" abestia abestuko da.

**Arratsaldeko 5etan** herri kirolak ikusgai.

**Arratsaldeko 6etan** erraldoi eta buruhaundiak kaleetan eta ondoren poteoa.

**Gaueko 9,30etan** bertso afaria Basabe jatetxean Peñagarikano eta Mendiluze bertsolariekin.

**GABONETAKO KONTZERTUA**

Leizarra Musika Eskolak antolatuta arratsaldeko 6etan Zaraia zineman.

18

egukotxa

**KONTZERTU LIRIKOA**

Aretxabaletako abesbatzaren eskutik.

**KULTUR ERROTA**

Patxi Kaleko bizkaitarraren ikuskizuna udaletxe zaharrean.

**TXONTXONGILO EMANALDIA**

Gorakada taldeak "Txanogorritxo" lana eskeiniko du Arrasateko Amaia antzokian arratsaldeko 5etan.



**LOGOPEDIA ZENTRUA**

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37-behea  
Tel: 943 79 79 46  
ARRASATE

**IRIARTE**



**Umeen denda**

Durana, 8 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 10 96

**PIENSO SUNZUE S.A.**



**FELIX PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak  
Mitarte, 7 behea  
☎ 943 77 00 33/79 42 56

**BEIRALAN**



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

**KRISTALDEGIA** ☎ 943 79 81 78 ARETXABALETA

Herriko plaza, 8 behea

**ELIKADURA**



**TXILARRA**

**BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 943 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 943 79 44 28  
ARETXABALETA

## IKASTARROAK

### SUKALDARITZA IKASTAROA

Abenduaren 14tik 18ra bitartean  
Loramendi Euskara Elkartek  
antolatuta.

### TXALAPARTA IKASTAROA

Abenduaren 18tik 31ra bitartean  
Loramendi Euskara Elkartek  
antolatuta.

### ESKULAN IKASTARROAK

Aretxabaletako Kultura Batzordeak antolatuta, kultur etxean eman behar da izena. Informazio gehiago: 943 79 01 05 telefono zenbakian.

### ERAKUSKETA ARRASATEN

Idazkeraren arteari buruzko erakusketa antolatu dute Arrasateko Monterron jauregian abenduaren 10etik 19ra bitartean.

Ordutegia: egunero, arratsaldeko 6etatik 8rak arte eta zapatu eta jaiegunetan eguerdiko 12etatik 2ak arte eta arratsaldeko 6etatik 8ak arte.



*Txalaparta ikastaroa izango da gabonetan*



**BEHARREZKO  
TELEFONOAK**

### Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 01 05
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxixo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

### Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

### Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 77 10 43
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00

### Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

**OPEL** 

**NORTE**

Zerbitzu Ofiziala

■ *Kotxe marka guztien  
konponketak*

■ *Zerbitzu guztiak*

Basabe Poligonoa, A-1-3 • Tfnoak: 943 79 62 65  
/79 20 86 Fax: 943 77 17 20 ARETXABALETA



Farmazia ikasi zuen Gas-teizen eta oraintsu Farma Bizi parafarmazia jarri du Portasolen. Bere ametsa farmazia bat jartzea da, baina Aretxabaletak duen biztanle kopuruagatik ez dago beste hirugarren far-mazia bat jartzeko aukerarik.

Lan kontuez gain Maitane oso zinezalea da.

• Nola bururatu zitzaizun parafar-mazia bat jartzea?

Nik farmazia bat jartzea nahi nuen, baina hau ezinezkoa denez, alternatiba bat hauxe izan da.

• Ausardia behar da Aretxabale-tan denda bat zabaltzeko?

## “Bezereokin egotea betidanik gustatu izan zait”

Bai, nik uste dut baietz, baina goi aldekoek eskertzen dute auzoari bizita-suna ematea.

• Farmazia ikasketak bukatu ondoren, zertan ibili zara?

96an bukatu nituen ikasketak. Geroztik doktoratua egiten nabil, sustutuzio batzuk egin ditut eta komertzial lanetan ere aritu naiz.

• Dendari lana gustoko duzu?

Bai, jendearekin harremana izatea betidanik gustatu izan zait.

• Gabonetan irfeteko asmorik?

Urtero moduan Bizkaira joango gara amamaren etxera.

• Zer eskatuko diozu Olentzerori?

Denda funtzionatzen hasteko.

• Edurra egiteko gogorik bai?

Bai, gustatzen zait edurra.

• Ilea osasuntsu izateko gomen-diorik?

Elikagai egokiak jatea eta garbitzeko produktu egokiak erabiltzea.

• Egunkarian zein berri irakurtzea gustatuko litzaizuke?

Momentu honetan farmaziak liberali-zatzearena.

• Zer ez zenuke sekula ere jantzi-ko?

Printzipioz dena jantziko nuke.

• Zenbat aldiz garbitzen dituzu

aginak egunean?

Hiru.

• Asteko egunik gustokoena?

Zapatua.

• Horoskopoa irakurtzen duzu?

Bai.

• Eta sinistu?

Komeni denean bai.

• Zein tesi egiten ari zara?

Farmakoepidemiologiari buruzkoa.

• Afiziorik?

Zinea.

• Ikusi duzun azken pelikula?

Snakes eyes. Akziokoak gustatzen zaizkit.

• Kotxe barik bizi daiteke?

Nik uste dut ezetz, oso komodoak gara.

• Platorik gustokoena?

Dena gustatzen zait, bat aipatzekotan entsalada.

• Eskutitz bat edo telefono dei bat?

Telefono dei bat.

• Lore bat?

Larrosa.

• Animalia bat?

Txoria.

• Izen bat?

Ez dakit, izen motzak eta euskal-dunak gustatzen zaizkit.

## KOMIKIA

### BALITZAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

Zaborra

# Behar den unean dagokion gunean

Zabor Bilketa:

Igande, Astearte eta Ostegunetan

21:00etatik 22:00etara




Deba Bazarra

DEBA GARAICO MANKOMUNITATEA  
COMUNIDAD DEL ALTO DEBA



# focus



**Focus Tour autoan, sekula ikusi gabekoa ikusiko duzu  
... eta ez da eredu bat**

Benetan berria den zerbait ikusi nahi baduzu, hurbil zaitetz Focus Tour karabanara. Azken aldiko autorik iraultzaileena aurkituko duzu. Eta ez da eredu bat. Igo eta miresteko aukera izango duzu, eta baita gidatzekoa ere. Munduko Focus handiena ikusi nahi baduzu, ez ezazu Focus Tour ezagutzeko aukera gal. Zatoz sekula ikusi gabekoa ikustera. Ez diezazuela beste batek konta.

 **MUGARRI**

**Mugarrik**

Abenduaren 22an eta 23an

gonbidatzen zaitu

Maiatzaren 1. enparantzan (San Andres auzoa)

goizeko 9:00etatik arratsaldeko 21:00etara